

VIOLENCIA DE GÉNERO: ESTUDIO DE CASOS PRÁCTICOS

NOIZ EMANGO DEN	NON	INSKRIPZIORAKO INFORMAZIOA
Ekainaren 3an	Araban Gazalbide-Txagorritxu Osasun Zentroan Gazalbide gelan	Maiatzaren 22a
IRAUPENA	PARTE-HARTZAILEEN KOP.	ORDUTEGIA
4 ordu	15	15:30etik 19:30era

NORENTZAT:

Tailerra osasun arloko profesionalei zuzenduta dago, eta **lehentasuna izango dute online prestakuntza** ("Genero-indarkeriari buruzko oinarritzko ikastaroa osasun-profesionalentzat") **jaso duten unitate hauetako langileek**: familia-eta komunitate-osasuna, ginekologia eta obstetrizia, osasun mentala, larrialdiak, emergentziak eta traumatologia.

HELBURUAK:**OROKORRA:**

Arreta integrala ematea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eta seme-alabei edo euren mende dauden bestelako pertsoneri. Horretarako, bada, osasun arloko profesionalei prestakuntza ematen zaie, indarkeria matxistaren biktima izan daitezkeen emakumeak detektatzeko gai izan daitezen.

ESPEZIFIKOAK:

Genero-indarkeria osasun publikoko arazoa eta giza eskubideen urraketa dela jabetzea.

Osasun arloko pertsonala prestatzea, genero-indarkeriaren arazoari erantzuteko esku-hartze eraginkorrak nola egin ikas dezaten.

Esparru soziosanitarioan genero-indarkeriari aurre egiteko zer baliabide dauden jakitea.

EDUKIA:

Parte-hartzaileek aurrez prestatutako kasu praktikokoak aurkeztea eta azaltzea: taldean eztabaidatzea eta ebaztea.

Kasuen balorazio biopsikosoziala egitea, kontsultan bertan detektatu eta artatzeko tratu txarrei lotutako egoerak.

Genero-indarkerian modu integralean esku hartzerakoan osasunaren arloko pertsonalari sortzen zaizkion kezkak azaltzea eta haien gainean gogoeta egitea, eta egoera horiei aurre egiteko alternatibak planteatzea.

METODOLOGIA:

Parte-hartzaile bakoitzak lanean edo, bestela, bizitza pertsonalean ezagutu duen kasu praktikoko bat eramango du, tailerrean hari buruz eztabaidatzeko.

Kasu bakoitza labur-labur aurkeztuko da, eta horri aurre egitean sortzen diren kezkak eta zailtasunak aipatuko dira.

Aurkeztutakoen artean, lau kasu praktikoko landuko dira. Parte-hartzaile guztiek landuko dituzte kasu guztiak. Modu horretan, ikasten ari denaren premietan oinarrituko da ikaskuntza-prozesua.

Amaitzeko, iradokizunak bilduko dira, etorkizunean nola joka daitekeen ikusteko.

ZIURTAPENA:

Ikastaroaren ziurtagiria lortu ahal izateko, gutxieneko bertaratze presentziala %100ekoa izan behar da. Asistentzia egiaztatzeko, bertaratutakoek orri batean sinatu behar izango dute saioaren hasieran eta amaieran.

ZEIN HIZKUNTZATAN EMANGO DEN: GAZTELANIAZ**IRAKASLEAK:**

José Ignacio Fraile.

EGIAZTAPENA ESKATUTA: BAI**ANTOLATZEN DU**

Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboa

(PRESTAKUNTZA@OSAKIDETZA.NET)

KOORDINAZIOA: *Zerbitzu Erakundeko Etengabeko Prestakuntzako arduraduna*

Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboa / Giza Baliabideak Kudeatu, Antolatu eta Garatzeko Zuzendariordetza